SANTO TOMAS LIZEOA

## *KOSTU EGITURA*

Enpresek gastu asko izaten dituzte, agunoek besteek baino garrantzi handiagoa izaten dute, baina hori aldatu egiten da enpresaren arabera. Hala ere, nabarmenak dira enpresa baten garapenerako eta bezorak gehiago lortzeko.

Lehenik eta behin, lokala gatsoen funtsezko zati bat da. Azkenean, eroa izango da lan egingo dugun lekua, ordu gehiago emango ditugun lekua. Horregatik, leku eroso eta egokia izan behar du. Gainera, biltegi gisa balio digu prest ditugun bidalketak, egiteke dauden bidalketak, enpresaren materialak… uzteko. Lehen esan dudan bezala, horrek ez digu inolako gasturik ekarriko’. Hau da, enpresak zenbat eta diru gehiago izan, orduan eta diru gehiago erabiliko dugu gure establezimendua hobetzeko, hau da, tokiko materialak… Horregatik, pilatutzat jotzen den diru-kopuru bat duzunean, lan-eremu berri bat erosteko erabiliko dugu, hau da, lokal handiago eta zabalago bat erosteko.

Gainera, oso garrantzitsua da udal-etxeak emango digun laguntza. Haiek, arropa kontainer ezberdinetan, hirian zehar jartzen utziko digute bertan jendeak arropa sar dezaten. Horri esker, pertsona ezberdinek erabiltzen ez dituzten jantziak bertan utziko dituzte. Jasotzen dugun arropari esker gastua txikitu egingo da, bigarren eskukoak izango direlako. Horregatik, oso garrantzitsua da jendeak arlo horretan egiten duten ekarpena, enpresari etekinan handitzen laguntzeko eta lan gehiago eduki ahal izateko.

Bukatzeko, gasolina oso garrantzitsua da enpresarentzat. Erabiliko ditugun automobilak, gasolina erabiliko dute, hau da, ez dira auto elektrikoak izango. Horregatik, erregaiez autoa betetzea ezinbestekoa izango da kontsumitzaileak eskatzen duen produktua kontsumitzaileari eman ahal izatko.

BI ESKU